# EIBARKO UMEEN ETA GAZTETXOEN BERTSO ESKOLA 2018AN KUDEATZEKO DEBA BEHEKO BERTSO ESKOLA DEBABEHE ELKARTEAREN ALDEKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEKO HITZARMENA

Eibarren, 2018ko maiatzaren 24an.

## BILDUTA

Alde batetik, MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL jauna, EIBARKO UDALEKO Alkate-Udalburua,

Bestetik ASIER IBAIBARRIAGA APOITA jauna; NAN duena; DEBA BEHEKO BERTSO ESKOLA (hemendik aurrera onuraduna, G95050464 IFK/IFZ, helbidea San Pelaio 7, 4. esk) erakundearen izenean eta haren ordezkari legez diharduena.

## ADIERAZTEN DUTE

Alde biek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dutela, eta ondoko klausula hauei jarraituko dietela:

## KLAUSULAK:

### LEHENENGOA: Araudi erregulatzailea.

Ondoko legeria da diru-laguntza hau emateko arauak ezartzen dituena:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzetarako Lege Orokorra.

b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

c) Eibarko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzak, 2012ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zena.

d) Hitzarmen honetan dauden klausulak.

### BIGARRENA: Diru-laguntzaren xedea.

Alde biek hitzartu dute diru-laguntza, onuradunak Eibarko umeen eta gaztetxoen Bertso Eskolaren 2018ko kudeaketa finantzatzeko erabiliko dela.

# CONVENIO PARA LA CANALIZACIÓN DE LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A FAVOR DE LA ASOCIACIÓN DEBA BEHEKO BERTSO ESKOLA DEBABEHEKO PARA LA GESTIÓN EN 2018 DE LA ESCUELA DE BERTSOLARIS DE EIBAR DIRIGIDA A NIÑOS/AS Y JÓVENES

En la Ciudad de Eibar, 24 de mayo de 2018.

## REUNIDOS

De una parte, D. MIGUEL DE LOS TOYOS NAZÁBAL, Alcalde-Presidente del AYUNTAMIENTO DE EIBAR.

De otra parte, Dª ASIER IBAIBARRIAGA APOITA; con DNI en nombre y representación de la Entidad “DEBA BEHEKO BERTSO ESKOLA” (en adelante beneficiaria), CIF/NIF G95050464, con domicilio en San Pelaio 7, 4. dcha,

## MANIFIESTAN

Que, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes cláusulas:

## CLÁUSULAS

### PRIMERA: Normativa reguladora.

La concesión de esta subvención está regulada por:

a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, aprobada por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2012, y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 17 de enero de 2013.

d) Las cláusulas contenidas en el presente Convenio.

### SEGUNDA: Objeto de la subvención.

Ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar la gestión en 2018 de la Escuela de bertsolaris

para niños/as y jóvenes en Eibar a desarrollar por la beneficiaria.

## HIRUGARRENA: Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua.

Oroharreko prezioan emango den Diru-laguntzaren zenbatekoa 1.735 eurokoa da; Udalak indarrean duen Aurrekontuaren 1.0800.481.01.335.10 (Irabazi xederik gabeko erakundeei) kontu-sailari egotzia.

## TERCERA: Cuantía y crédito presupuestario.

La cuantía de la subvención que se concederá a tanto alzado asciende a 1.735 €, imputado a la partida 1.0800.481.01.335.10 (A Instituciones sin fines de lucro) del vigente Presupuesto de la Corporación.

## LAUGARRENA: Diru-laguntza emateko baldintzak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezkeen gastuak, emandako diru-laguntza erabiltzerakoan DLOaren 31. artikuluan eta hitzarmen honetan ezarritako eran egindakoak izango dira.

Diru-laguntzaren hedapena:

Onuradunak, hedapena eman behar dio jaso duen diru-laguntzari ondoko era honetan:

Eibarrerako bereziki egiten diren kanpaina eta ekitaldien publizitatean Eibarko udalaren laguntza agerian utzita.

Beste baldintza batzuk:

a) Herri mailan ume eta gaztetxoen bertsolaritzarekin zerikusia duten ekitaldietan parte hartzea.

b) Eibarko Udalak Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana garatzeko antolatutako edo sustatutako ekimenetan lankide izatea.

c) Euskara Sailari -gutxienez hilabete bat lehenago- egiten den ekitaldi edo jarduera bakoitzaren berri ematea (eguna, ordua, tokia…); aldaketaren bat izanez gero, aurrez eta astiz komunikatu edo jakinarazi.

d) Jarduerak Eibarko hedabideen aurrean kaleratzerakoan, Euskara Sailari horren berri eman behar zaio eta, horrez gain, Euskara Batzordeko kideei prentsa-aurreko horietara joateko deia edo gonbita luzatu behar zaie.

Hizkuntza irizpideak

Argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte

## CUARTA: Condiciones de otorgamiento.

Gastos subvencionables:

Serán subvencionables los gastos a los que se apliquen los fondos en los términos establecidos en el artículo 31 de la LGS y en el presente convenio.

Difusión de la subvención:

La beneficiaria deberá dar difusión a la subvención concedida de la siguiente forma:

En la publicidad de las campañas y actos organizados específicamente para Eibar se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Eibar.

Otras condiciones:

a) Participar en las actividades relacionadas con el bertsolarismo infantil y juvenil que se realizan en el municipio.

b) Colaborar en las actividades organizadas o impulsadas por el Ayuntamiento para el desarrollo del Plan de Acción para el Fomento del Euskera.

c) Informar previamente (como mínimo con un mes de antelación) de cada actividad concreta (día, hora, lugar…) al Departamento de Euskara, y comunicar con antelación suficiente posibles cambios en el programa de actividades.

d) Poner en conocimiento del Departamento de Euskara los actos de presentación a prensa de las actividades del programa y facilitar la asistencia de los miembros de la Comisión de Euskara a los mismos.

Criterios Liguísticos

Los anuncios, avisos y demás textos publicados serán escritos y dados a conocer en euskera y castellano.

Propaganda ere, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dute.

Jendaurreko ekitaldietan antolatzaileek egiten duten jarduna (aurkezpenak, sarrera, agurrak, oharrak…) euskaraz eta gaztelaniaz izan daitezen ahaleginak egingo dituzte.
Oharra:
Herritar multzo euskaldunarentzako direnean euskaraz izango dira.
Entitate eskatzaileek Euskara Zerbitzura jo ahalko dute testuak itzultzeko eta zuzentzeko, betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betez gero.

La propaganda, tanto oral como escrita, se hará en euskera y castellano.

En los actos públicos las intervenciones de los organizadores (presentaciones, introducción, saludos, avisos…) se harán en lo posible en euskera o en euskera y castellano.
Nota:
Los dirigidos al colectivo vascoparlante serán en euskera.
Las organizaciones solicitantes podrán acudir al Servicio de Euskera para traducir o corregir textos, siempre que se cumplan las condiciones y características del servicio.

## BOSGARRENA: Hitzarmena sinatzea

Hitzarmena sinatu aurretik, onuradunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) IFKaren fotokopia. Dokumentuaren bi aldeak A4 neurriko orri baten alde bakarrean fotokopiatuta egon behar dira.

b) Ordezkapenaren akreditazioa. Akreditazioa zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da (notario-ahalorde, eskriturak…). Akreditazioari Ordezkariaren NANaren fotokopia erantsiko zaio.

c) Erakundearen Estatutuen kopia, Elkarteen Erregistroan izen-ematearen agiriarekin batera.

d) Frogagiria, eskatzaileak duen banku-kontuaren titularitatearena; eskaera egin duen pertsonaren identitatearekin bat etorri behar dena (ondoko dokumentu hauetatik edozein da baliozkoa: laburpen bankarioaren aldakia; aurrezki-libretaren aldakia; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo diru-laguntzarako eskaera-orrian bertan dagoen KONTU ZENBAKIA atalean bertan banketxeak emandako zigilua).

e) Onuraduna DLOren 13.2 artikuluak aurreikusten dituen debekuetan ez dagoela sartua dioen erantzukizunezko aitorpena edo deklarazioa (eredua PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

f) Aitorpen arduratsua aurkeztu behar du onuradunak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela eta diru-laguntzak itzultzeagatik ez duela diru-ordainketarik egiteke utzi esaten (eredua PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri). Dokumentu honi Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Foru Ogasunaren egiaztagiriak erantsi beharko zaizkio emandako diru-laguntza 3.000 €koa baino handiagoa den kasuetan.

## QUINTA: Firma del Convenio

Previo a la firma del convenio la beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del CIF de la entidad solicitante. Las dos caras del CIF deberán ir impresas en una misma cara de un folio tamaño A-4.

b) Acreditación de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras…). A la acreditación documental de la representación se le adjuntará la copia del DNI del representante

c) Copia de los estatutos de la entidad, junto con justificante de su inscripción en el Registro de Asociaciones

d) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria del/de la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante (será válido, cualquiera de los siguientes documentos: Copia del extracto bancario; copia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «Número cuenta» del impreso de solicitud de subvención).

e) Declaración responsable de no encontrarse la beneficiaria incurso en las prohibiciones para ser beneficiaria previstas en el artículo 13.2 de la LGS (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.eus).

f) Declaración responsable de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.eus), acompañada de certificaciones acreditativas de tales circunstancias emitidas por la Tesorería General de la Seguridad Social y la Hacienda competente, en el caso de que el importe de la subvención concedida sea superior a 3.000€.

Dokumentuok PEGORAn entregatuko dira (Herritarren Zerbitzurako bulegoa, Udaletxea, beheko solairua edo etxabea, Untzaga plaza) Junkal Txurrukari, Euskara Arloko zuzendariari zuzenduak, onuradunak errekerimendua jaso eta 10 egun balioduneko epean.

Eskatutako dokumentuak behar bezala aurkeztuta, Hitzarmena sinatu ahal izango da.

La documentación deberá entregarse en PEGORA, a la atención de Junkal Txurruka, Directora del Área de Euskera, en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de recepción del requerimiento que, en tal sentido, se haga a la beneficiaria.

Entregada en conformidad la documentación requerida, se podrá proceder a la firma del Convenio.

## SEIGARRENA: Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziotik edo erakunde publikotik zein pribatutik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri, baldin eta diruz lagundutako jarduerak duen kostutik gorakoak ez badira, eta beste diru-laguntza horien araudiak horren inguruan ezar dezakeenaren kaltetan gabe.

## SEXTA: Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

## ZAZPIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa.

Onuraduna diru irabazi asmo bariko erakunde edo entitate bat denez eta diruz lagundu zaion jarduera burutzeko behin-behinekoz finantzatzeko behar beste baliabiderik ez duenez, diruz lagundutako jarduerari aurreratu egingo zaio diru-laguntza; aurreratutako zenbatekoen interesak, diru-laguntzaren zatitzat hartuko dira.

Diru-laguntza 2 zatitan ordainduko da, eta honela banatuko da:

a) diru-laguntzaren %60a hitzarmena sinatzean

b) gainerako %40a kontu garbiketa aurkeztu eta konprobatu ondoren

## SEPTIMA: Pago de la subvención.

Por tratarse la beneficiaria de una entidad sin ánimo de lucro y no disponer de recursos suficientes para financiar transitoriamente la ejecución de la actividad subvencionada, la subvención se abonará anticipadamente a la realización de la actividad subvencionada, considerándose que los intereses de los importes anticipados forman parte de la subvención.

La subvención se distribuirá en 2 pagos, distribuidos de la siguiente forma:

a) el 60% a la firma del convenio

b) el restante 40% tras la presentación y comprobación de la cuenta justificativa.

## ZORTZIGARRENA: Berme-araubidea.

Onuradunari ez zaio bermerik eskatuko, ez delako ikusten hitzarmen honen ondorioz bere gain hartu dituen obligazioak bete ez izanaren arriskurik.

## OCTAVA: Régimen de garantías.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

## BEDERATZIGARRENA: Onuradunak, diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko duen epea eta modua.

## NOVENA: Plazo y forma de justificación por parte de la beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

Jarduera egiteko edo dirua erabiltzeko epea 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31 artekoa izango da.

El plazo para la realización de la actividad o aplicación de los fondos será desde el 1 de enero de 2018 hasta el 31 de diciembre de 2018.

Diru-laguntza emateko helburua bete duela zuritzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko onuradunak duen epea 2019ko martxoaren 1ean bukatuko da.

El plazo de justificación por parte de la beneficiaria del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos finalizará el 1 de marzo de 2019.

Justifikatzeko modua KONTU GARBIKETA delakoaren bidez egingo da, eta ondoko dokumentu hauek izango ditu:

La forma de justificación será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA que contendrá los siguientes documentos:

a) KONTU GARBIKETAREN AITORPENA, PEGORAn eta www.eibar.eus udal webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

a) DECLARACIÓN CUENTA JUSTIFICATIVA según modelo disponible en PEGORA y en la web municipal (www.eibar.eus)

b) Jarduera Memoria, diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete egin direla zuritu edo justifikatuko duena; hori dena PEGORAn eta www.eibar.eus udal webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera

b) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, según modelo disponible en PEGORA y en la web municipal (www.eibar.eus).

c) Jarduerak izan dituen gastuen eta diru-sarreren zerrenda sailkatua; hartzekodunak eta dokumentua identifikatuta; bakoitzaren zenbatekoak eta jaulkipen-data azalduta; PEGORAn eta www.eibar.eus udal webgunean eskuragarri dagoen DIRU-SARREREN ETA GASTUEN ZERRENDA ereduaren arabera.

c) Una relación clasificada de los gastos e ingresos de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe y fecha de emisión, según modelo RELACIÓN DE GASTOS E INGRESOS disponible en PEGORA y en la web municipal (www.eibar.eus)..

d) Fakturen edo horien ordezkoen eta ordainagirien kopiak, gastua egiaztatze aldera, baita nominen, tributuen zein Gizarte Segurantzako kuoten kopiak eta, oro har, trafiko juridikoan baliodun izan edo indar administratiboa eduki eta balio frogagarria duten bestelako agirien kopiak ere, betiere modu korrelatiboan ordenatuta eta gastuen eta diru-sarreren zerrendan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

d) Copias de facturas o documentos sustitutivos, de recibos, incluso de nóminas, de tributos y de cuotas a la Seguridad Social y de demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico o con eficacia administrativa acreditativos del gasto realizado, ordenados correlativamente según el número de orden asignado en la relación clasificada de los gastos e ingresos.

Diru-laguntza kobratzeko ez da derrigorrezko baldintza izango egindako gastua hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzea. Dena dela, Udalak Udal Kontuhartzailetzaren bitartez zio hori egiaztatu ahal izango du aurrerago.

No será necesario, como requisito para el cobro acreditar el pago a los acreedores por razón del gasto realizado. No obstante, el Ayuntamiento, a través de la Intervención Municipal podrá comprobar ulteriormente este extremo.

e) Aitorpen arduratsua aurkeztu behar du onuradunak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela eta diru-laguntzak itzultzeagatik ez duela diru-ordainketarik egiteke utzi esaten (eredua PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri). Dokumentu honi Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Foru Ogasunaren egiaztagiriak erantsi beharko zaizkio emandako diru-laguntza 3.000 €koa baino handiagoa den kasuetan.

e) Declaración responsable de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.eus), acompañada de certificaciones acreditativas de tales circunstancias emitidas por la Tesorería General de la Seguridad Social y la Hacienda competente, en el caso de que el importe de la subvención concedida sea superior a 3.000 €

## HAMARGARRENA: Izaera pertsonaleko datuen babesa.

## DECIMA: Protección de datos de carácter personal

Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duen erakundeak deklaratzen du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebehar guztiak goitik behera onartzen dituela.

Aldi berean, izenpetzen duen erakundeak adierazten du Eibarko udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiek Eibarko udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan sartzeko eta tratamendu automatizatua emateko baietza ematen duela.

Sinatzen duen erakundeak deklaratzen du, hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatu duen erakundeak edo entitateak baimena ematen dio Eibarko udalari:

a) Izaera pertsonaleko datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko; hala ere, beste Administrazio Publiko batzuei edo beste inori laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitako kasuetan.

b) Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizkoa den informazio guztia eskuratu ahal izateko, Udal Sail eta Atal guztietan eta beste Administrazio Publiko batzuen fitxate-gietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Azkenik, Hitzarmen hau izenpetzen duen erakundeak deklaratzen du berak eman dituen datuak eskuratzeko aukeraren inguruko argibide guztiak eman zaizkiola eta, hala bada, esandako Lege horrek ezarritako moduan, datu horiek zuzentzeko, datuen aurka egiteko edo ezabatzeko eskabidea egiterik ere baduela, Eibarko udalean datuen tratamenduari buruzko arduradunarengana zuzenduta: Eibarko udala, Untzaga plaza z/g; 20.600, Eibar (Gipuzkoa). Eskabidea egiteko, datu hauek eman behar ditu: izen-abizenak, helbidea jakinarazpenak bidaltzeko, eskaera zehatza, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Gainera "Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomi Erkidegoko toki erakundeetarako" dokumentua ondorengo webgune hauetan kontsulta dezakezu: www.eudel.eus eta www.avpd.es.

## HAMAIKAGARRENA: Auzigaiak.

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auzigaiak, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Con la firma del presente convenio, la entidad firmante declara que reúne todos los requisitos establecidos en el mismo y que acepta íntegramente las condiciones y obligaciones recogidas en él.

Así mismo, la entidad firmante manifiesta que los Datos Personales facilitados al Ayuntamiento de Eibar son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Eibar.

La entidad firmante declara que la información facilitada para la firma de este convenio es cierta y que no ha sido omitida o alterada.

La entidad firmante autoriza al Ayuntamiento de Eibar:

a) A que el uso de dichos datos de carácter personal se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

b) A realizar todas las consultas que fueren necesarias en los ficheros de las áreas y departamentos municipales u otras Administraciones Públicas, a fin de obtener la información que resulte relevante para la correcta gestión de la subvención objeto de este convenio.

Finalmente la entidad firmante declara que ha sido debidamente informada de la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada anteriormente, pudiendo dirigir una comunicación escrita al responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar, plaza Untzaga s/n; 20.600 Eibar (Gipuzkoa) con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

Asimismo, se puede consultar el "Manual de Buenas Prácticas de Protección de Datos Personales para entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco" en las direcciones de internet www.eudel.eus y www.avpd.es.

## DECIMOPRIMERA: Cuestiones Litigiosas.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Eta alde biak ados daudela erakusteko, hitzarmen hau egin eta honen ale bi izenpetu dituzte goian adierazitako lekuan eta bertan esandako egun horretan.

Y, en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

EIBARKO UDALAREN IZENEAN
POR EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZÁBAL

DEBA BEHEKO BERTSO ESKOLAREN IZENEAN
POR “DEBA BEHEKO BERTSO ESKOLA”

D. ASIER IBAIBARRIAGA APOITA